

LEIOA. Batutakoa birziklatu egingo dabe, barriro erabili ahal izateko



VERONICA MUÑOZ

Leioa izango da egitasmo barria martxan ipinten dauen Bizkaiko bigarren udalerrria.

Arropea birziklatzeko sei edukiontzi ipiniko dabez

Udalak Berohi alkatteagaz sinatutako hitzarmenari esker egingo da

Veronica Muñoz |

Arropea birziklatzeko edukiontziak ipiniko dabez Leioan datozan egunokaz, Berohi alkatte kooperatibeak Caritas eta Rezikletagaz batera Udalagaz sinatutako hitzarmen bati esker. Esperientzia joan dan urtean ipini eben martxan lehenengo aldiz, Getxon, eta Leioa izan da egitasmoagaz jarraitzeko aukeratu daben Bizkaiko bigarren herria.

Aurrerantzean, leioaztarrek gura dabezan jantziak, oinetakoak eta osagarriak birziklatzeko aukerea eukiko dabe. Danetara sei edukiontzi ipiniko dabez, ondorengo lekuetan: Behargintzako egoitzan (Mendibile 3), Sakoneta kiroldegian,

Udal Euskaltegian, San Bartolome auzoko kultur etxean, San Joan Batailatzaille elizan (udal-txe ondoan) eta Bide Ona gasolindegian, Leioako abantzan.

Enplegua sortu, eta ingurumena zaindu

Helburu nagusi bi lortu gura dabez egitasmo honeguz. Alde batetik, batutako material guztia birziklatuko dabe, ahal dan neurrian barriro erabili ahal izateko. Izan be, gauza batzuk salgai ipiniko dabez, eta beste batzuk premia handiak daukiezan artean bananduko dabez. Holan, enplegua be sortuko dabe beharra topetako zailtasun handiak daukiezan lagunen artean.

Beste alde batetik, ekimen honeguz baliorik ez daukien jantzi guztiak udal zabortegean lagako dabez, ingurumena zaintzeko helburuaguz.

Getxon 16 edukiontzi ipini dabez azken hileotan, eta esperientzia oso ona izan da, Jose Maria Rodriguez Berohiko bozeroaleak azaldu dauenez.

Getxoztarren erantzuna ederra izan da, eta arropa gehien jaso diran lekuak izan dira Areetako Mesedeetako kalea eta Bidezabaleko anbulatorioa. Azken leku horretan, hain zuzen be, bigarren edukiontzi ipini dabe orain egun gitxi. Leioan be herrikoen erantzuna ona izango dala itxaroten dabe egitasmoaren bultzatzaileek.

GETXO. Atzerritik turista gitxiago etorri ziran, aurreko urteakaz alderatuta

33.000 informazino eskaera jaso ebazan Turismo Bulegoak igaz, 2000n baino %6 gehiago

V.M. |

Getxoko Turismo Bulegoak 33.040 lagunen informazino eskaerak jaso ebazan joan dan urtean, 2000n baino %6,7 gehiago, atzo prentsurrekoan aurkeztu eben balantzearen arabera. Getxoko turismo eskaintzearen ganeko argibideak emon ebezan Ereagako bulego-

an, Tangora Etxean eta bulego mogikorrean, zuzenean zein telefonoaren bidez.

Jasotako kontsulta gehienak (%50 inguru) getxoztarrek egin ebezan. Horren ostean Euskal Herritik etorritako turistak dagoz (%22 inguru), eta gero Espainiatik etorritakoak, Madrildik eta Bartzelonatik batez be (%15 gitxi gorabehera).

Atzerritarren artean, barriz, turisten kopurua 2000. urtean baino txikiagoa izan zan, eta gehienak Frantziatik eta Erresuma Batutik etorri ziran.

Urtero egiten dan moduan, joan dan udan turismo bulego txikia zabaldu eben Algortako Tangora Etxean. Bulego horretan 2.770 turistaren informazino eskaerak atenditu ebezan; 2000. urtean baino %5,60 gitxiago, hain zuzen be.

Eta egoera berezietan zabalduetako bulego mogikorrean, azkenik, 2000n baino ia %24 kontsulta gehiago jaso ziran.

LABURREAN

GETXO

Villamonteko auzokide gehienak kultur etxe barriaren alde dagozala dino Getxoko alkateak

Getxoko PPK Villamonten zabalduko dan kultur etxe barriaren inguruan eginiko kritikak ukatu ebazan Iñaki Zarraoa alkateak, atzo emondako prentsurrekoan. Izan be, PPKoek salatu dabe Gobernu Taldeak ez dauela kontuan hartu auzokoen eritxia, proiektu hori onartzeko. Zarraoak, barriz, inguru horretan bizi diran auzokide gehienak proiektuaren alde dagozala dino, eta ez dauela ulertzen orain batzuek hartu daben jarrea, «lokala garajeak egiteko izan behar dirala dinoelako, baina erosteko aukerea euki ebenean ez ebelako egin». Villamonte auzoan Getxoko kultur etxe barriaren egoitza nagusia egiteko beharrak laster hasiko dira.

GETXO

Jon Arretxek eginiko bidaiak, Erromoko Kultur Etxean

Jon Arretxe idazleak *Zazpi kolore*, *Munduko koloreak* izeneko berbaldua emongo dau arrastion, Erromoko Kultur Etxean. Arretxek eginiko azkenengo zazpi bidaien ganean izango da berbaldua, eta diapositibak be erakutsiko dauz. Ekitaldia iluntzeko 20:00etan hasiko da, eta gura dauenak hartu leike parte, sarrerea doan izango dalako. Ekimen hori Egizu Getxo Euskaldun egitasmoaren barruan eratu dabe, Munduaren Berri atalean.

LEIOA

Agate Deunaren Lehiaketarako epea hilaren 31n itxiko dabe

Agate Deunaren Lehiaketan parte hartzeko epea urtarrilaren 31n itxiko dabe. Kultur Etxeak gertau dau, eta maila bi ezarri dabez: lehenengo 16 urte arteko leioaztarrentzat, eta bigarrena 16 urtetik gorakoentzat. Talde bakoitza 12 lagunek osatu beharko dabe gitxienez, eta maila bakoitxean hiru sari bananduko dabez: 300 euro eta garaikurra lehenengoentzat, 210 euro eta garaikurra bigarrenentzat, eta 150 euro eta garaikurra hirugarrenentzat.

LEIOA

Ludotekea zabalduko dabe laster Pinuetan, gaur egun liburutegia dagoen lokaletan

Pinuetako liburutegia dagoen lokaletan ludotekea zabalduko dabe, asteon Gobernu Batzordeak onartu dauenez. Proiektuaren bidez, liburutegiaren zerbitzua emongo dabe 14 urte arteko umeentzat, eta umeentzako ludotekearen zerbitzua be zabalduko dabe, gazteen artean liburuekiko zaletasuna handitzeko helburuaguz beren beregi. Horrezaz ganera, eskolako beharrak egiteko laguntzea eskainiko deusie umeei, eta baita beste hainbat ekitaldi be, tartean tailerrak, bideo emonaldia, filmak eta ipuin kontalariak. Ludotekea astelehenetik barikura arte zabalduko dabe, 16:30etik 19:30era.

AGENDEA

GETXO

Zinekluba: *Antes que anochezca* Julian Schnabelek zuzenduriko filma emongo dabe Areetako Gran Cineman, 20:00etan. Sarrerea 2,40 eurotan dago.

Batzarra: Gizatiar Erromo-Areetako Andren Alkatteak bazkideentzako batzarra egingo dau 18:00etan, Santa Eugenia.

Berbaldia: Salvador Robles kazetari, pedagogoa eta idazleak berbaldua eskainiko dau 19:30ean Algortako Kultur Etxean, *El afán de superación* izenburupean. Getxoko ATEPAK antolatatu dau, eta sarrerea doan izango da.

BERANGO

Erakusketa: Iñaki Olabarrietaren argazkiak ikusteko aukerea egongo da

zezeilaren 2ra bitartean, Berangoko erakusketa aretoan.

GORLIZ

Ikastaroa: Kultur Etxeak sukaldaritza ikastaroa eratu dau gizonentzat. Informazino gehiago: 94 677 40 00.

BAKIO

Berbaldia: *Salud y menopausia*, arrastiko 19:00etan, Bakioko Kultur Etxean.

Erakusketa: Kultur Etxeak erakusketa aretoak Jokin Mitxelena irudi biziak hartuko dauz urtarrilaren 29ra arte. Erakusketa astelehenetik barikura bitartean egongo da zabalik, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Horrezaz ganera, erakusketa dala eta, liburutegian marrazkigile horren lan batzuk egongo dira txikiaren esku.